



CPAP APARAILUAREKIN TITULAZIO AUTOMATIKOA ETXEAN.

ZER DA CPAP TITULAZIOA?

Loaldian arnasketa jasotzen eta analizatzen duen proba bat da. Loaren apneen-hipopneen sindromea (SAHS) diagnostikatu zaizu eta CPAP aparailu bat erabiltzeko agindu zaizu.

Probaren helburua da presio egokiena lortzea zure SHAS sindromea bere onera ekartzeko.

NOLA PRESTATU BEHAR DA PROBARAKO?

Probaren egunean ohiko bizimodua egin. Gomendatzen da edari alkoholodunik edo bizigarririk ez hartzea (kafea, tea, kolazko freskagarriak, etab...); nolana ere, egun horretan normalean egiten duzuna egitea komeni da (eguneroko bizimodua).

Botikaren bat hartzen baduzu, ez duzu hartzez utzi behar, baina hartu baduzu, komeni da proba egingo dizun arduradunari jakinaraztea.

NON ETA NOLA EGINGO DIDATE PROBA?

Santiago AUOn dagoen loaren unitatera joan beharko duzu, B pabiloiko 2. solairura adierazi zaizun orduan. Artatua izateko egon zain itxaron-gelan

Zure etxean bertan egingo da proba. Horretarako, erizainak auto-CPAP makina utziko dizu azterketa egiteko eta hark emandako argibideei jarraituko diezu zehatz-mehatz.

Zure ohean egingo duzu lo, auto-CPAP makina eta zure maskarekin.

Proba prozedura telemonitorizatu bidez egiten da. Egunero makinak gaueko txostena igorriko du loaren unitatera eta unitate beretik makinaren parametroak doitzen joango dira, aurrez aurreko bisitak murriztu asmoz.

Emitza hoberenak lortzeko beharrezkoa da auto-CPAP makina loaldi osoan erabiltzea. Proban zehar ez ukitu auto-CPAP makinaren botoirik eta sistematik, non eta erizainak ez dizun halakorik esan. Inolako zalantzarik izanez gero, deitu Loaren laborategira.

Oso garrantzitsua da probek irauten duten bitartean, ekipoa ez desentxufatzea korrante elektronikotik.

ZER EGIN BEHAR DUT PROBAREN ONDOREN?

Loaren unitatea zurekin harremanetan jarriko da proba amaitu dela jakinarazteko eta beste hitzordu bat emateko; hitzordu horretan zuk adierazitako ordu eta egunean ekipoa itzuli beharko duzu.

NON JASOKO DITUT PROBAREN EMAITZAK?

Egun horretan gainera, zure CPAP makina propioa eman beharko duzu kontsultara.

EMAITZAK:

CPAP enpresa hornitzailea zurekin harremanetan jarriko da zure makinak duen presioa aldatu behar izanez gero.